



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko martxoaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko martxoaren bostean, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, HEGUY Antton.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : MATEO Jean François.

Deialdiaren eguna : 2024ko otsailaren 29a

Afitzatze eguna : 2024ko otsailaren 29a

2. ERABAKIA: GAZTAINA ELKARTEKO BAZKIDE IZATEA

(9.1 nomenklatura)

Auzapezak Gaztaina elkarte eta horren estatutuak aurkeztu dizkio Herri Biltzarrari. Elkartea 2018an sortu zen Euskal Herriko gaztainaren lantzea eta bilakatzea balioan ezartzeko.

Iraganean, lurralde honetan, eta bereziki Baigura mendigunean gaztainadi handiak baziren (Bidarrai, Heleta, Ortzaize, Luhuso, Makea eta Lekorne), lekuaren altuera ezin hobea baita arbola horien garatzeko. Ipar Euskal Herriko bertze leku batzuetan ere atzeman dira gaztainadiak: Zuraide, Senpere eta Baigorriko ibarrean besteak beste. ..)

Elkartek ondare hori zaintzea, berreskuratzea eta garatzea du xede, altuera ertaineko mendigunea behar bezala antolatu eta partekatzeko.

Pertsona fisikoak eta juridikoak (pribatuak ala publikoak) dira elkarteko bazkide.

Elkarteko kide izatea proposatu du, urtean 300 euroko sari baten truke.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz deliberaturik, Herri Biltzarrak,

- **ERABAKI DU**, Gaztaina elkarteko bazkide izaten segitzea,
- Jean-Claude IRIART jauna **IZENDATU DU** Ortzaizeko herriaren ordezkari gisa,
- **ERABAKI DU**, urteko saria ordaintzea.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 12
Balizko boz kopurua : 12
ALDE : 12
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko martxoaren 5ean

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/03/08an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/03/08an.